


FEMINISMOAREN GARAIA DA LABek ERALDAKETA FEMINISTA!





Euskal
Herri feminista
eraikitzeak eta LAB
sindikatu feminista
izateak erabateko
iraulketa dakarkie
gure teoria
eta praktikari


Beste krisi ekonomiko bat atzean uzten ari ginen 1995ean Emakume Idazkaritza sortu genuenean. Emandako erantzunarekin kritikoak ginen, bereziki emakumeen errealitateak apenas lekurik izan ez zuelako sindikatuok antolatu eta langileok egin genuen borrokan.

Krisi berri bat, askoz bortitzagoa, askoz basatiagoa, iragan berri dugu. Eta orain 20 urte bezala, asko ikasi dugu gertatutakoaz eta emandako erantzunaz. Sakon aritu gara krisiaz baliaturik inposatu diguten egoera aztertzen, eta baieztapen borobil bezain latz eta egiazkoak egin izan ditugu: sostengarria ez den kapitalismoan ez dago ondo bizitzerik, hainbat lagunentzat ezta bizirauterik ere. Eta kapitalismoaren barnean alferrik ari gara emakume eta gizonen arteko berdintasuna bilatzen; gaurko instituzioetatik egin daitezkeen berdintasun politiken bidez ez baitugu sistema aldatuko.

LABen 9.Biltzar Nagusian “gure garaia” dela aldarrikatzearekin batera, sindikatuan eraldaketa feministari berrekiteko garaia ere badela erabaki dugu.

Euskal Herri feminista eraikitzeak eta LAB sindikatu feminista izateak erabateko iraulketa dakarkie gure teoria eta praktikari, barrura zein kanpora begira. Balio feministetan oinarritzeak eta hauek praktikan jartzeak parekidetasuna lortzetik eta sexu-genero diskriminazioak ezabatzetik harago doan paradigma berri oso batera jauzi egitea da. Jendarte eredua, sozioekonomia ulertzeko era, etorkizuneko gure herriaren ezaugarri eta zutabeak eta berau eraikitze modua, gure inguruarekiko eta pertsonen arteko harremanak, komunitatearen garrantzia... dena blaitzen du erabaki honek, heteropatriarkatuak bizitzaren eremu guztiak zeharkatzen dituen heinean.

Eraldaketa feministaren premia aldarrikatu dugu. Eta etxetik hastea erabaki dugu, duela 20 urte bezala, sindikalismoan aintzindariak izan gaitezen.




ORAIN ARTEKO IBILBIDEA

Ez gara hutsetik abiatzen, ordea. Aspaldi esan genuen emakume langileek egoera espezifikoak pairatzen dutela lan munduan eta, hortaz, milaka aurpegi dauzkan desberdineria hau borrokatzeko Emakume Idazkaritza sortu genuen. Hala eta guztiz ere, 2000. urtea mugarrizko guretzat, 5. Biltzarraren testuinguruan I. Berdintasun Plana martxan ipini genuen eta.

Lan munduan ez ezik, emakumeek sindikatu barruan ere jasaten zuten diskriminazioak ekiditea eta sindikatuko ateak emakume militanteei zabaltzea zituen helburu plan honen. Neurri ausartak hartu genituen eta LAB erreferentzia bihurtu zen. Emaizak, 17 urte beranduago, agerikoak dira. Sindikatu parekidea lortu dezakegula esan dezakegu, egiturari dagokionez, behintzat, eta gure ordezkartzan eta afiliazioan bide oso onetik goazela ezin ukatu.

Hala ere, sindikatura emakumeak sartzeko eta zuzendaritza zein ardura guneetan egoiteak ez du sindikatuaren funtzionatzeko eta antolatzekeko eredu androzentrista gainditzeko ekarri. Baina baldintza aproposak sortu ditugu beste aurrerapauso bat egiteko: Emakume Idazkaritzatik, Idazkaritza Feministara eta Aukera Berdintasun Planetik, Plan Feminista ausart eta eraldatzailerak. Trantsizio prozesu honetan laguntzeko, sindikatuko emakumeak ahaldunduzko, gure gizon eta emakume militanteak feminismoan jantzeko, besteak beste, Eskola Feminista martxan jarriko dugu.

Lan munduan zein jendartean berdintasuna/parekidetasuna exijituzetik, eredu berria aldarrikatu eta eraikitza egin behar dugu jauzi. Sistemak ezarritako ereduan zirrikituak bilatuzetik, feminismoan oinarrituko den eta, beraz, jendarte osoarentzat justuagoa izango den eredu berri baterako trantsizioa dugu beharrezkoa, baita sindikatu barruan ere.



Egungo sistemak
bizitza bera
erasotzen du.
Bizitzaren
iraunkortasuna
eta sostengarritasuna
jartzen ditu ezbaian

BIZITZA VS. KAPITAL GATAZKA

9. Biltzar honen testuinguruan aztertu eta azaldu dugunez, klase gatazka barruan sortzen eta birsortzen diren esplotazio ezberdinak lan-kapital gatazkatik harago doaz. Klase eta genero esplotazioarekin batera, arraza, sexu eta jatorri diskriminazioak ere suertatzen dira, harreman ekonomiko heteropatriarkaletan ezinbestekoak direnak.

Egungo sistemak bizitza bera erasotzen du. Bizitzaren iraunkortasuna eta sostengarritasuna jartzen ditu ezbaian. Kapital metaketa mehatxua da bizitzarako: helburua irabaziak dira eta bizitzak horretarako bitartekoa besterik ez. Bizitzaren hainbat dimentsio, baita hainbat eta hainbat bizitza ere, soberan daude sistema kapitalistarentzat. Ez dira errentagarriak edo, bestela esanda, errentagarriagoak dira suntsituz gero, sostengatuz gero baino. Bizitza sostengatzeko ardura esfera sozioekonomiko pribatizatu, feminizatu eta ikusezinetan geratzen da. Jendarte prekarioaren beharrak asetzea familien esku gelditzen da, emakumeen esku, alegia. Kapitalismoarentzat bizitzaren sostengua metaketarako medioa da eta bizitza nola sostengatzen den ezkutatzen du: honetarako egiten diren jarduera guztiak (zaintza lanak) ere ekonomia direla ez du aitortzen, ez du onartzen lan-bizitza gatazka, ikustezin bihurtzen du.

Kapitala eta merkatuak daude sistema kapitalistaren erdigunean. Erdigunean daude euren mekanismoek egitura sozioekonomikoa ezaugarritzen dutelako eta, euren arabera, jendarteak bermatu behar duen prozesu bakarra metaketa delako. Erdigunean daude euren logika antropozentriko eta androzentrikoak definitzen dutelako zeinek merezi duen bizitzea eta zeinek ez. Autosufizientziaren ideala inposatzen dute, zaurgarriak eta interdependienteak garela ezkutaturik eta, areago, subjektu pribilegiatuen "autosufizientziaren" atzetik besteen esplotazioa ezkutatzen dela isildurik. Erdigunean daude gatazka zelaia markatzen dutelako eta zehaztutako esparruen zirikietatik hobekuntzak aldarrikatzera mugatu nahi gaituztelako, enpleguan, soldatetan edota kontsumitzaile eta ez pertsona moduan.

Horregatik esaten dugu bizitza dela erdigunean jarri behar duguna. Bizitzaren sostengarritasuna bermatzea izan behar da gure helburua eta gure ardatz politikoa, zeren eta, zertarako ulertu produkzioa pertsonen bizitza duina eta sostengarria eskaintzeko ez bada?

BIZITZA ERDIGUNEAN

Enpleguaren elementua bere eredu sindikalaren erdigunean duen sindikatutik bizitza, eta hortaz bizi baldintza duinen aldeko borroka, erdigunean kokatuko duen sindikatua izatera pasatzea da erronka.

Honek ez du esan nahi lan gatazkek eta lan aldarriek gurean pisua galduko dutenik, baina lan prekarietatearekin batera, prekarietate soziala gainditzeko lan egingo duen sindikatua, hau da, bizitzaren prekarizazioari aurre egingo diona lortu nahi dugu. Langile eta herritar ororen behar eta interes anitzi erreparatuko diena. Eta baieztapen honek ekintza sozio-sindikal integrala garatzera eraman behar gaitu. Bizitzaren prekarizazioari aurre egin, langileen berrosaketa bultzatu eta bizitzaren sostengarritasuna erdigunean kokatuko duen ekintza sindikal eta sozialaz ari gara.

Jendarte, komunitate, produkzio eta kontsumo eredu berri bat eraiki behar dugu. Bestelako eredu bat eraikitzeaz ari garenean, bestela bizi, ekoiztu, kontsumitu eta inguru-nearekin zein beste pertsonekin harremanak izateko bestelako era batez ari gara. Hazkunde hutsagatik hazkunde nahiarekin amaitu eta horri buelta emango dion jendartea. Naturaren kontura ez, baizik eta naturarekin harremanaz biziko den jendartea, ekologikoki iraunkorra den eredu... Horretarako, komunitatearen, herriaren, protagonismoa azken hariraino eraman beharra dago, identitate anitz eta propioak kontuan harturik.


Bizitza erdian kokatzeak klase gatazkan paradigma berria ere badakar; gatazka jada ez da enplegu vs. kapitala parametroetan kokatzen, bizitza vs. kapitala parametroetan baino, eta horrek klase subjektu zabalago eta anitzagoa kontuan izatea dakar.

Ezin diogu sistemari eman norbera zer garen edo zeren parte garen erabakitzeke ahalmena. "Langileria", subjektua, zeintzuk osatzen dugun erabakitzea guri dagokigu. La-

naren ikuspegi integralari erreparatzea ezinbestekoa da, sistemak ezarritako lan eta enpleguaren arteko dikotomia hautsita: ez da soilik langilea lan merkatuan soldatapeko enplegu bat duena, merkatu arautuan lan egiten duena, hirugarren batentzat lan egiten duena... Egun langileriatzat hartzen dugun subjektu murriztetik langileriaaren definizio zabal, anitz eta integratzaileari ateak zabaldu behar dizkiogu, langile subjektibitate ezberdinak barnebilduko dituen definizioari.

Bizitza eta pertsonak erdigunean kokatzeak, funtzionatzeko eta lan egiteko gure egungo moduak ezbaian jartzea ere badakar, gure militantzia eredua bestelako betaurreko batzuekin aztertzea.

Pertsonon beharrianak zein dauzkagun zaintza ardurak kontuan izan eta horiek gure militantzia/lanarekin uztargarri egitea ahalbideratuko duen militantzia eredu bizigarri eta osasungarriagoa martxan ipintzea da sindikatuaren erronka eta horretan ari gara. Argi utzi nahi dugu kolektibotasunean oinarrituko den militantzia ereduaz ari garela; hortaz, egungo jendarte postmodernoari lotutako balio neoliberal eta indibidualistean oinarritzen den militantzia gurean ez luke lekurik izan behar. Bizitza eta pertsonak erdigunean ipintzea ez du esan nahi norberaren bizitza erreferentzia bakartzat jo eta militantzia boluntarismoan oinarritzea, guztiz kontrakoa, baizik.



BALIO FEMINISTETAN OINARRITUTAKO SINDIKATUA


LABek euskal feminismo erradikal baten alde egiten du, erradikala, sistema errotik aldatu nahi duen heinean; feminismo eraldatzaile eta iraultzaile, egoera eraldatu eta irauli nahi duenez gero.

Balio feministak ez dira esparru publikora edo instituzio, gobernu eta abarren erabakietan eragitera zuzentzen diren aldarrikapenak, baizik eta bizi kolektibo eta indibidualak eratzeko eta euren artean harremanak izateko moduak. Balio feministek gure bizitzaren arlo guztiak blaitzen dituzte: arlo pribatua, arlo soziala eta harremanen arloa.

LAB pertsonen eta naturaren esplotazioan oinarritzen den sistema kapitalista heteropatriarkalaren kontra dagoela jakin badakigu, baina zeintzuk baliotan oinarritu nahi dugu gure sindikatuak? Zeintzuk baliotan nahi dugu Euskal Herri berria oinarritzea? Ez dago zerrenda itxi eta zurrunik, baina gauza bi dauzkagu argi: eraiki nahi dugun sistema gaurdanik osagarritzen eta praktikan jartzen joan behar garela, geure burutik eta geure etxetik hasita, eta feminismoa abizen edo lelo hutsa izatetik, orain dagoen bazterretik, euskal sozialismoaren muinera ekarri behar dugula, gure eguneroko ekintzen bitartez.

Bizitza erdigunean jartzeaz aritzean, ondo bizitzea edo bizi ona balio nagusitzat jotzen dugu. Pertsonen eta herrien behar objektibo eta subjektiboak guztiz aseturik egotean eta pertsona guztien eskubideen errespetuan datza bizi ona edo ondo bizitzea. Bizitzea merezi duena da bizi ona. Eraldaketa sozial eta pertsonal sakonak beharrezkoak dira honetarako. Norbanakokeriatik edo egoismotik aldentzen da ideia hau eta funtsa elkarren premian, elkarren errespetuan zein zaintzan, konpromisoan eta korresponsabilitatean jartzen du. Horrela ulertu behar dugu, esaterako, sindikatuaren "Guztiok ondo bizitzeko plana".

Heteropatriarkatuak emakume/gizon dikotomia eratzean (gainditu beharreko dikotomia, bestalde), hainbat balio femininotzat eta hainbat maskulinotzat ezarri ditu. Femininotzat hartzen duen hori beti izan da mespretxatua, laidotua edota bigarren mailan



Heteropatriarkatuak
femeninotzat hartzen duen
hori beti izan da mespretxatua,
laidotua edota bigarren mailan
utzia. Ezaugarri hauetako askori ba-
liao eman, berkalifikatu eta erradika-
lizatzea garrantzitsua da justizian,
ekitatean eta elkartasunean
oinarritutako jendarte eredu
berria sortu nahi
badugu


utzia. Ez dugu esan nahi balio horiek emakumeok
geurezkoak ditugunik, ezta emakume guztiok
horrela jokutzen dugunik, baizik eta ezauga-
rri hauetako askori balioa eman, berkalifikatu
eta erradikalizatzea garrantzitsua dela justi-
zian, ekitatean eta elkartasunean oinarritu-
tako jendarte eredu berria sortu nahi badugu.
Lehiakortasunaren aurrean, elkartasuna; norba-
nakokeriaren tokian, kolektibitatearen garrantzia;
pertsonek arteko botere harremanen gainetik, harre-

man parekide, osasuntsu eta osasungarriak; pertsonen,
beste izakien eta planetaren zaintza balioztatzea, esparru pribatuan ez ezik, sozioeko-
nomia eta politikan, demokrazia ulertzeko eta militatzeko moduan ere islatu dadin.

“Pertsonala politikoa da” esaldiak ‘60-’70 hamarkadetan emakumeon zapalketa eta diskriminazioa azalarazteko balio izan zuen bezala, pertsonaetik abiatzeak balio ahal digu azalarazteko eguneguneko lan eta zeregin guztiak politikoak direla, esparru eta momentu orotan egiten den hori, talde sozial ezberdinen ideien, ekintzen eta gorpu-
tzen bitartez. Pribatu eta publikoaren arteko muga ezabatu, biak nahastu eta esperien-
tzia ezberdinetatik elikatu behar da. Lantokiak, etxeak eta komunitateak erlazionatuta
dauden modua ulertzeak antolakuntza modu eraginkorragoak asmatzeko eta borroka
bateratuak errazteko aukera eman diezaguke.

Era berean, feminismoak ekarpen garrantzitsua egiten dio antolakuntza modu ez hie-
rarkizatuei eta eredu demokratikoagoei. Norbanakoen boteretzea funtsezko tresna da
sindikatu barruan eta sindikatuko militanteok jarduten dugun esparru guztietan lidergo
konpartituetara eramateko eta hauek garatu ahal izateko. Konpartituak eta, Marcela
Lagardek dioenez, lidergo “maitagarriak”.

Euskal Herriak behar duelako, euskal langileriak behar duelako,
euskal sindikalismoak behar duelako... LABek urrats feminista!



CONFLICTO VIDA VS. CAPITAL

Como hemos analizado y explicado en este 9º Congreso, las distintas explotaciones que se gestan y reproducen dentro del conflicto de clase van más allá del conflicto capital-trabajo. Junto con la explotación de clase y género, también se dan discriminaciones raciales, sexuales y a causa del origen, imprescindibles para las relaciones económicas heteropatriarcales.

El sistema actual ataca a la propia vida. Pone en riesgo su sostenibilidad. La acumulación de capital es una amenaza para la misma: el objetivo son los beneficios y las vidas tan solo un instrumento para ello. Para el sistema capitalista muchas dimensiones de la vida, así como muchas y muchas vidas, están de sobra. No son rentables o, dicho de otra manera, son más rentables destruidas que sostenidas. La responsabilidad de sostener la vida queda así relegada a una esfera socioeconómica privatizada, feminizada e invisibilizada. Cubrir las necesidades de esta sociedad precaria queda en manos de las familias, es decir, recae sobre las mujeres. Para el capitalismo el sostenimiento de la vida es un medio para la acumulación, por lo que esconde el proceso de este sostenimiento: no reconoce que todas las actividades necesarias para ello (los trabajos de cuidados) también son economía, no acepta el conflicto trabajo-vida, lo invisibiliza.

El capital y los mercados están en el centro del sistema capitalista. Están en el centro, porque sus mecanismos caracterizan la estructura socioeconómica y, porque, según estos, el único proceso que debe garantizar la sociedad es la acumulación de capital. Están en el centro, porque su lógica antropocéntrica y androcéntrica define quién merece vivir y quién no. Imponen el ideal de la autosuficiencia, ocultando que somos vulnerables e interdependientes y, más aún, acallando que detrás de la “autosuficiencia” de los sujetos privilegiados se esconde la explotación del resto. Están en el centro, porque marcan el campo de conflicto y pretenden circunscribirnos a que reivindicemos mejoras entre los entresijos de los ámbitos que nos han delimitado, sea en el empleo, en los salarios o como consumidores y consumidoras en vez de como personas.

Por eso decimos que es la vida lo que hay que situar en el centro. La sostenibilidad de la vida debe ser nuestro objetivo y nuestro eje político, porque ¿para qué comprender la producción si no es para ofrecer una vida digna a las personas?

ES EL TIEMPO DEL FEMINISMO

LAB POR UNA TRANSFORMACIÓN FEMINISTA






Construir una Euskal Herria feminista y que LAB se constituya como sindicato feminista conlleva una verdadera revolución en nuestra teoría y nuestra práctica

Estábamos dejando atrás otra crisis económica cuando en 1995 creamos la Secretaría de la Mujer. Habíamos analizado críticamente la respuesta que habíamos dado, especialmente el hecho de que la realidad de las mujeres apenas había tenido lugar en la lucha que habíamos organizado los sindicatos y que habíamos llevado a cabo las trabajadoras y trabajadores.

Hemos pasado otra crisis, mucho más brutal, mucho más salvaje. Y ahora, al igual que hace 20 años, hemos aprendido mucho sobre lo sucedido y sobre la respuesta que hemos dado. Hemos analizado largo y tendido la situación que nos han impuesto valiéndose de la crisis y hemos realizado contundentes afirmaciones al respecto, tan contundentes como duras y ciertas: el capitalismo no es sostenible y no hay forma de vivir dignamente dentro del mismo, para mucha gente ni siquiera hay forma de sobrevivir. Y es en vano buscar dentro del capitalismo la igualdad entre mujeres y hombres, ya que es imposible cambiar el sistema por medio de las políticas de igualdad que pueden realizarse desde las instituciones actuales.

En este 9º Congreso, además de afirmar que es “nuestro momento”, en LAB hemos decidido que es la hora de retomar la transformación feminista en el sindicato. Construir una Euskal Herria feminista y que LAB se constituya como sindicato feminista conlleva una verdadera revolución en nuestra teoría y nuestra práctica, de puertas hacia dentro y de puertas hacia fuera. Basarnos en valores feministas y ponerlos en práctica supone un nuevo paradigma que va más allá de conseguir la paridad y de acabar con las discriminaciones de sexo-género. Esta decisión influye en todos los ámbitos, en el modelo de sociedad, en la manera de entender la socioeconomía, en las características y las bases que debe tener nuestro pueblo y la forma de construirlo, las relaciones con nuestro medio y entre las personas, la importancia de la comunidad... en todo, ya que el heteropatriarcado atraviesa todos los aspectos de la vida.

Es necesaria una transformación feminista. Y hemos decidido comenzar por casa, que LAB sea, tal y como lo fue hace 20 años, precursor dentro del sindicalismo.



Hemos creado las condiciones apropiadas para dar otro paso adelante: de la Secretaría de la Mujer a la Secretaría Feminista y del Plan de Igualdad de Oportunidades a un Plan Feminista valiente y transformador

EL CAMINO YA RECORRIDO

No partimos de cero. Hace ya tiempo que dijimos que las mujeres sufren una situación específica en el mundo laboral y, para hacer frente a esta desigualdad de mil caras, creamos la Secretaría de la Mujer. El año 2000 fue, no obstante, un punto de inflexión para nosotras y nosotros, ya que, en el contexto del 5º Congreso, pusimos en marcha el I. Plan de Igualdad.

Este plan tenía como objetivo hacer frente a las discriminaciones que también dentro del sindicato soportaban las mujeres y abrir nuestras puertas a las militantes. Adoptamos decisiones valientes y LAB se convirtió en un referente. 17 años más tarde los frutos son evidentes. Podemos decir que hemos conseguido un sindicato paritario, por lo menos en lo que se refiere a la estructura, y en nuestra representación y afiliación no se puede negar que vamos por muy buen camino.

Sin embargo, que se hayan incorporado mujeres al sindicato y que ocupen puestos de responsabilidad y en la dirección no ha supuesto que superemos el modelo androcentrista de funcionamiento y organización. Aunque sí hemos creado las condiciones apropiadas para dar otro paso adelante: de la Secretaría de la Mujer a la Secretaría Feminista y del Plan de Igualdad de Oportunidades a un Plan Feminista valiente y transformador. Para ayudar en este proceso, para empoderar a las mujeres del sindicato y para capacitar en el feminismo a nuestras y nuestros militantes pondremos en marcha, entre otras medidas, una Escuela Feminista.

Debemos pasar de exigir la igualdad/paridad en el mundo laboral y en la sociedad a reivindicar y construir un nuevo modelo. Necesitamos pasar de buscar entresijos en el modelo impuesto por el sistema a una transición hacia un nuevo modelo que se base en el feminismo y que sea, por tanto, más justo para toda la sociedad, también dentro del sindicato.

SITUAR LA VIDA EN EL CENTRO

El reto consiste en pasar de ser un sindicato que tiene el elemento del empleo en el centro de su modelo sindical a un sindicato que sitúe en el centro la vida y, por tanto, la lucha por condiciones de vida dignas.

Esto no quiere decir que los conflictos y las reivindicaciones laborales vayan a perder peso, pero pretendemos conseguir un sindicato que luche por superar, junto la precariedad laboral, la precariedad social, es decir, que haga frente a la precarización de la vida, que contemple las múltiples necesidades e intereses de todas las trabajadoras y trabajadores y de toda la ciudadanía. Esta aseveración debe llevarnos a desarrollar una acción socio-sindical integral. Nos referimos a una acción sindical y social que haga frente a la precarización de la vida, que impulse la recomposición de la clase trabajadora y que sitúe en el centro la sostenibilidad de la vida.


Debemos construir un nuevo modelo de sociedad, de comunidad, de producción y de consumo. Cuando hablamos de construir un nuevo modelo, nos referimos de una manera diferente de vivir, producir, consumir y relacionarnos con el medioambiente y las demás personas. Una sociedad que acabe y dé la vuelta al deseo de crecimiento por el puro crecimiento. Una sociedad que no viva a costa de la naturaleza, sino en relación con ella, un modelo que sea sostenible ecológicamente... Para ello, es necesario llevar hasta sus últimas consecuencias el protagonismo de la comunidad, del pueblo, tomando en cuenta las diversas identidades propias.

Situar la vida en el centro también trae consigo un nuevo paradigma en el conflicto de clase; ya no se sitúa en parámetros de empleo vs. capital, sino en parámetros de vida vs. capital, lo que conlleva tener en cuenta un sujeto de clase más amplio y diverso.

No podemos darle al sistema el poder de decidir qué somos o de qué formamos parte. Decidir quiénes constituimos el sujeto de “clase trabajadora” nos corresponde a nosotras y nosotros. Es imprescindible tener en cuenta una perspectiva integral del trabajo, terminando con la dicotomía que establece el sistema entre trabajo y empleo: no es trabajador o trabajadora solamente quien tiene un empleo asalariado en el mercado laboral, quien trabaja en el mercado regularizado, quien trabaja para un tercero... Desde ese sujeto limitado que concebimos hoy en día como clase trabajadora, debemos abrir las puertas a una definición amplia, diversa e integradora, que aúne distintas subjetividades.

Situar la vida y las personas en el centro supone poner en discusión nuestro actual modo de funcionamiento y de trabajo, examinar con unas gafas distintas nuestro modelo de militancia.

El reto consiste en tomar en cuenta las necesidades de las personas y nuestras responsabilidades de cuidados y poner en marcha un modelo de militancia más saludable, que merezca ser vivido y que permita que las necesidades personales y de cuidados sean compatibles con la militancia/trabajo en el sindicato. Queremos dejar claro que estamos hablando de un modelo de militancia basado en la colectividad, por lo que una militancia basada en los valores neoliberales e individualistas que corresponden a la sociedad posmoderna actual no debe tener lugar en nuestra organización. Situar la vida y las personas en el centro no supone que se tenga como única referencia la vida de cada cual y basar la militancia en el voluntarismo, sino todo lo contrario.



Debemos ir configurando y poniendo en marcha desde hoy el sistema que pretendemos construir. Debemos traer el feminismo desde el margen que ocupa hoy día al núcleo del socialismo vasco, por medio de nuestras actuaciones diarias

UN SINDICATO BASADO EN VALORES FEMINISTAS


LAB aboga por un feminismo vasco radical, en la medida en que pretende cambiar de raíz el sistema; un feminismo transformador y revolucionario, en tanto que queremos dar la vuelta y transformar la situación.

Los valores feministas no son reivindicaciones que se dirigen al espacio público, a influir en las instituciones, gobiernos y demás, sino que se tratan de la manera de constituir nuestras vidas individuales y colectivas y de establecer relaciones entre ellas. Los valores feministas atañen a todos los ámbitos de nuestras vidas: el ámbito privado, el social y el relacional.

Que LAB está en contra del sistema capitalista heteropatriarcal basado en la explotación de las personas y de la naturaleza es bien sabido, pero ¿en qué valores queremos basar nuestro sindicato? ¿en qué valores queremos que se fundamente la nueva Euskal Herria? No existe una lista cerrada y rígida, pero tenemos dos cosas claras: que debemos ir configurando y poniendo en marcha desde hoy el sistema que pretendemos construir, comenzando por nosotras y nosotros mismos y por nuestra casa, y que el feminismo debe dejar de ser un apellido o un lema y debemos traerlo desde el margen que ocupa hoy día al núcleo del socialismo vasco, por medio de nuestras actuaciones diarias.

Al hablar de situar la vida en el centro, consideramos el buen vivir como uno de los valores principales. El buen vivir consiste en que todas las necesidades objetivas y subjetivas de las personas y los pueblos estén satisfechas y se basa en el respeto de los derechos de todas las personas. El buen vivir son vidas que merecen ser vividas. Exige transformaciones sociales y personales profundas. Esta idea se aleja del egoísmo y pone atención en la necesidad y el respeto mutuos, en el cuidado, el compromiso y la corresponsabilidad. De esta manera debemos entender, por ejemplo, el “Plan para vivir bien todas y todos” del sindicato.

El heteropatriarcado, al erigir la dicotomía mujer/hombre (dicotomía que, por otro lado, es preciso superar), establece ciertos valores como femeninos o como masculinos.



Lo que el heteropatriarcado considera como femenino siempre ha sido despreciado, desprestigiado y dejado en un segundo plano. Es importante poner en valor muchas de estas características, recalificarlas y radicalizarlas si queremos crear un nuevo modelo de sociedad basado en la justicia, la equidad y la solidaridad

nos. Lo que considera como femenino siempre ha sido despreciado, desprestigiado y dejado en un segundo plano. No queremos decir con esto que se traten de valores específicos de las mujeres ni que todas actuemos de esa manera. No obstante, es importante poner en valor muchas de estas características, recalificarlas y radicalizarlas si queremos crear un nuevo modelo de sociedad basado en la justicia, la equidad y la solidaridad. Ante la competitividad, solidaridad; frente al egoísmo, la importancia de la

colectividad; por encima de las relaciones de poder entre las personas, relaciones paritarias, sanas y saludables; dar valor a el cuidado de las personas, de los demás seres y del planeta, para que tenga su reflejo no solo en el ámbito privado, sino también en la socioeconomía y la política, en la manera de entender la democracia y en la militancia.

El lema de que "lo personal es político", así como en las décadas de los '60-'70 sirvió para poner de relieve la opresión y discriminación de las mujeres, partir de lo personal puede ser válido para resaltar que todos los trabajos y tareas diarias son políticos, eso que se realiza en todos los momentos y en todos los ámbitos, por medio de las ideas, acciones y cuerpos de los distintos grupos sociales. Hay que diluir la diferenciación entre público y privado, entremezclar ambos y nutrirlo desde distintas experiencias. Entender la manera en que los centros de trabajo, los hogares y las comunidades están interrelacionados puede facilitarnos imaginar modos de organización más efectivos y la posibilidad de luchas compartidas.

De la misma manera, el feminismo hace una aportación muy importante a las formas de organización no jerarquizadas y a modelos más democráticos. El empoderamiento personal es una pieza fundamental para poder depositarlo y desarrollar liderazgos compartidos, tanto dentro del sindicato como en todos los ámbitos donde intervienen nuestras y nuestros militantes. Compartidos y, como dice Marcela Lagarde, liderazgos entrañables.

Porque Euskal Herria, su clase trabajadora y el sindicalismo vasco lo requieren... avancemos hacia y en el feminismo. LABek urrats feminista!